

2018/11/30

Gurasoak, agur:

Datorren astelehenean, abenduaren 3an, Zurriola Ikastolako ikasle, irakasle eta langileek **Euskararen Eguna** ospatuko dugu. Etapa guztietan hainbat ekimen burutuko dira. Hauxe da LHko ikasleen eguneko plangintza:

LH 1-2-3. mailak: goizean-goiz erromeria izango dute Ategorrietan. Ondoren, Manteo kiroldegira abiatuko dira GKAI/GKES-eko irakasle eta ikasleek bideratutako jolas desberdinak egiteko.

LH 4-5-6. mailako ikasleak Hurren elkartu eta Manteo kiroldegira joango dira goizeko lehen orduan hainbat jarduera egiteko.

Horretarako, LH4, 5 eta 6. mailako ikasleak Hurrako egoitzara 08:55erako bertaratu beharko dira. Bertan beraien irakasleekin elkartu eta haiekin Manteora bideratuko dira. Goizeko zaintza edo goizeko autobus zerbitzua erabiltzen duten maila hauetako ikasleek, Ikastolako autobus zerbitzuarekin eramango ditugu Hurraraino.

Jolasak eta gero, DBH eta BATXILLERGOko ikasleekin batera Musika-Eskolak antolatutako jaialdia izango dute Manteon bertan, eta ondoren geletara bueltatuko gara.

LH1, 2 eta 3. mailako ikasleak oinez joango dira Manteora eta LH4koekin batera Ategorrietara oinez bueltatuko dira ere. Beraz, euria egingo balu, Ategorrietako ikasleek aterkia edo txanodun berokia ekartzea ezinbestekoa izango da.

Arratsaldean, ohikoa den bezala, txokolate-janarekin eta euskal musikarekin ospakizunari amaiera emango diogu LHko taldeak. Horretarako, **ikasle bakoitzak etxetik edalongi berrerabilgarri bat ekartzea eskatzen dizuegu.**

Agur bero bat,

LHko koordinatzailea



Estimadas familias,

El próximo lunes, 3 de diciembre, el alumnado, profesorado y demás trabajadores de la Ikastola Zurriola celebraremos el Euskararen Eguna con diferentes actividades en todas las etapas. Esta es la planificación del día para LH.

1º, 2º y 3º curso de LH: comenzarán el día con una romería en Ategorrieta. Después irán al polideportivo Manteo, donde disfrutarán de los juegos organizados por el alumnado y profesorado de GKAI/GKES.

4º, 5º y 6º curso de LH: se reunirán en Hurra para ir al polideportivo Manteo a primera hora y participar en las actividades propuestas.

Para ello es necesario que el alumnado de LH4, 5 y 6 se acerque al edificio Hurra a las 08:55h. Allí se encontrarán con sus profesores y profesoras y partirán a Manteo. A los niños y niñas de estos cursos que utilicen el servicio de guardería o el de autobús por la mañana, los acercaremos a Hurra con el servicio de autobús de la Ikastola.

Después de los juegos, disfrutaremos en Manteo también de la fiesta organizada por la Musika-Eskola, junto con los alumnos y alumnas de DBH y BACHILLERATO. Al finalizar regresaremos a las aulas.

El alumnado de 1º, 2º y 3º de LH irá caminando a Manteo y regresará a Ategorrieta, junto con los de 4º curso, caminando también. Por lo tanto, en caso de lluvia, es necesario que traigan paraguas o abrigo con capucha.

Por la tarde, como viene siendo habitual, el grupo de LH daremos fin a la celebración con una Chocolatada y música en euskera. Para ello, **pedimos que los alumnos y alumnas traigan de casa un vaso reutilizable.**

Un saludo,

LHko Koordinatzailea